



MUG'ARTEAN: ikerketa eta sorkuntza solasean mugari begira



Uzt. 16 2024

Kod. G14-24

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2024

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 16 2024

Kokalekua

Cité des Arts. Baiona

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

10 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Jarduera hau UPV/EHU eta UPPA-ko ikerleek proposatzen dute Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseiluarekin lankidetzan, muga eta artearen harremanen inguruko hausnarketak proposatuz.

Schengen espazioko Euskal Herriko muga eta Schengen espaziotik kanpo bilakatua den Irlandako mugaren inguruan, ikerlariak eta artistek egin lanketa ezagutzera ematera du helburu. Ikerketa eta sorkuntza lotzen dituen esperientazio desberdinetan oinarrituz, munduko hainbat muga politiko desberdinetan gertatutakoak, jardunaldi honen bidez muga nozioaren inguruko solasaldia eta galdekatzea sortu nahi du baita zientzia sozialen eta artearen arteko harremana eratu.

Batez ere antropologoen lanetan oinarrituko da jardunaldia, arte lanetan oinarritzen den muga kontzeptuaren inguruko paradigma berri baten proposatzeko eta bestalde, nola muga, arte prozesuen jatorrian den analizatuko da. Sortzaile-artistak ere hor izanen dira beraien esperientzia eta gogoetak partekatzeko mugaz. Azkenik, Garapen Kontseiluak, UPV/EHU eta Cederna-Garalur elkartearekin eramaten duen MUGALUR proiektuaren lehen emaitzen bilduma bizi eta artistikoaren momentua izanen da, proiektu honek sortzaileak lotu dituelarik denbora guzian.

Helburuak

Mugaren izaeraz eta eraginaz hausnartu, munduko egoera desberdinetan oinarrituz.

Zientzia sozialak eta artearen harremanak eratu mugaren kontzeptuaren lanketan.

Schengen espazio barneko Euskal Herriko muga eta Schengen espazioko kanpo bilakatua den Irlandako mugaren inguruan, ikerlariak eta artistek egin lanketa ezagutzera ematera.

Programa

2024-07-16

08:45 - 09:00	Erregistroa
09:00 - 09:05	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Aitzpea Leizaola Egaña EHU - Irakaslea
09:05 - 11:00	“MUGALUR, bilduma bizia eta arte sorkuntza prozesuaren kronika” Aitzpea Leizaola Egaña EHU - Irakaslea Elena Casiriain Iturriria EHU -- IEHGK - Doktoregaia - Misio karguduna Jone Taberna Estomba 4 - Artista Dom Campistron Artista
11:00 - 11:30	Atsedena
11:30 - 12:00	“Euskal Herriko mugak argazkilarien begiradapean. Funanbulismoa muga marraren gainean” Saio dinamiko eta parte hartzailea Asier Gogortza EHU - IEHGK - Doktoregaia - Misio arduraduna Gari Garaialde Bostok photo - Artista
12:30 - 13:00	Sintesia

Zuzendaritza



Aitzpea Leizaola Egaña

UPV/EHU

Antropologoa. Hizkuntzalaritza eta antropologia ikasketak burutu zituen Parisen. Université Paris Nanterren antropologian doktorea, EHUko irakasle agregatua da, bai eta bertako Antropologia Master Ofizialeko zuzendaria. Oxford University-n Basque Visiting Fellow izan da. Ikerlari gonbidatua izan da nazioarteko hainbat unibertsitatetan, besteak beste Buenos Airesko Unibertsitatean, Milango Unibertsitatean eta Max Planck Institutuen. Erromako Visual Fest 2014 saria lortu zuen “Abordatzera! Dokumental etnografikoa”rekin. Aldizkari zientifikoetan 30 artikulua inguru argitaratu ditu eta Ankulegi aldizkariaren sortzaile eta edizio taldeko kide izan da. Dibulgazioan jardun ohi du, hitzaldi eta iritzi artikulua bidez. Multi-kokatutako eta epe luzeko landa lana burutu du nagusiki Euskal Herrian, baina baita beste testuinguru batzuetan ere, Espainiar estatuan eta Turkian. Espainiako Gerrako hobi komunen inguruan Aranzadi Zientzia Elkartearekin landa lana egindakoa. Identitate eraikuntza prozesuetan aditua, bere ikergai nagusiak mugak, ondarea, memoria gatazka-osteko testuinguruetan eta oro har, euskal kultura dira. Besteren artean, tradizio kontzeptua, inauteri eta festa ospakizunak aspaldidanik lantzen dituen gaiak dira.

Irakasleak



Dom Campistron



Elena Casiriain Iturriria



Gari Garaialde



Asier Gogortza



Aitzpea Leizaola Egaña

UPV/EHU

Antropologoa. Hizkuntzalaritza eta antropologia ikasketak burutu zituen Parisen. Université Paris Nanterren antropologian doktorea, EHUKo irakasle agregatua da, bai eta bertako Antropologia Master Ofizialeko zuzendaria. Oxford University-n Basque Visiting Fellow izan da. Ikerlari gonbidatua izan da nazioarteko hainbat unibertsitatetan, besteak beste Buenos Airesko Unibertsitatean, Milango Unibertsitatean eta Max Planck Institutuen. Erromako Visual Fest 2014 saria lortu zuen “Abordatzera! Dokumental etnografikoa”rekin. Aldizkari zientifikoetan 30 artikulua inguru argitaratu ditu eta Ankulegi aldizkariaren sortzaile eta edizio taldeko kide izan da. Dibulgazioan jardun ohi du, hitzaldi eta iritzi artikulua bidez. Multi-kokatutako eta epe luzeko landa lana burutu du nagusiki Euskal Herrian, baina baita beste testuinguru batzuetan ere, Espainiar estatuan eta Turkian. Espainiako Gerrako hobi komunaren inguruan Aranzadi Zientzia Elkartearekin landa lana egindakoa. Identitate eraikuntza prozesuetan aditua, bere ikergai nagusiak mugak, ondarea, memoria gatazka-osteko testuinguruetan eta oro har, euskal kultura dira. Besteren artean, tradizio kontzeptua, inauteri eta festa ospakizunak aspaldidanik lantzen dituen gaiak dira.



Jone Taberna Estomba

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2024-07-17 ARTE
Mugaz Gaiindiko Uda Ikastaroak	0 EUR

Kokalekua

Cité des Arts. Baiona

3 Av. Jean Darrigrand, 64100 Bayonne, Francia.

Akitania